



# LAGUNARTEKO OMENALDI BEREZIA SOROARI

Hilaren 24an, 'Lagunarteko ilunabarrean' omenaldia egingo diote Miguel Soroa pilotariari; duela 2 hilabete hil zen **5**

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteartea  
2008-04-15**

VIURTEA 1.408. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Leitza eta Aresoko musikariak, Satur Eleta Lehiaketaren ostean. HITZA

## Patxi Urizarrek irabazi du Arrigorriagako XI. Duatloia

**VILLABONA** 2:54:48ko denbora behar izan zuen kirolariak ibilbidea amaitzeko; distantzia luzeko Euskadiko Txapelketa ere irabazi du **6**

## Oria merkatari elkartearen eskutik, moda desfilea

**VILLABONA** Datorren larunbatean izango da Gurean; «animazioa sortu nahi genuen eta ideia polita iruditu zaitzaigun», azaldu dute elkartetik **3**

## SATUR ELETA LEHIAKETAN, BOST SARI ESKUALDEKOENTZAT

**LEITZA** Aralar Musika Eskolak urtero antolatzen duen txapelketa honetan Leitza eta Aresoko bost ikaslek sariak eskuratu zituzten **7**


argazki lehiaketa



Bozkatzan duzuenon artean HITZako materiala zozketan!



**BOZKATU**  
gustukoena!





# Moda desfilea larunbatean Oriaren eskutik

**Villabona** » Datorren larunbatean izango da, 19:30ean, Gurean; sarrera doakoa da eta modelook eskualdeko herritarrik dira.

IMANOL GARCIA

Oria Merkatarien Elkarteak moda desfilea antolatu du datorren larunbaterako, hilak 19, 19:30ean, Gurea aretoan. Sarrera doakoa izango da eta ekitaldira joaten direnek mokadutxoak jateko eta produktu sorta baten zozketan parte hartzeko aukera izango dute. Desfile honen helburua herriko denden produktuak erakustea dela azaldu dute Oriatik. «Elkartea martxan jarri genuenean animazioa sortu nahi genuen, ekitaldiak egin», azaldu dute Mari Jose Ira-



Alberto Cid eta Mari Jose Irazusta, desfilea iragartzen duen kartelarekin. i.g.

zusta eta Alberto Cid elkarteko kideek. «Zarautzen horrelako desfile bat antolatu zuten eta interesgarria iruditu zitzaigun».

## Ikusmina

Ikusmina sortu du herrian desfileak. Eskualdeko herritarrik izango dira modelook, guztira 30 inguru. Denboraldi honetako arropak erakutsiko dituzte eta baita ere gauze jantzeko edo ekitaldi jakinetarako jantziak. Horrez gain, osagarriak ere erakutsiko dira eta modelo bakoitza ilea apainduta eta makilatu-ta joango da jantziko duen arroparen arabera.

Ekitaldia aurkezten Anjel Alkain eta Mikel Pagadizabal izango dira. Kristina Aranzabek eta Leire Berasaluzek osatzen duten Lain taldeak bere musikarekin girotuko du ekitaldia.

## » PARTE-HARTZAILEAK

- **Arropa denda.** Idoia, Ane, M.P., Sara, Amane, Kuxkux eta Guanabana.
  - **Lora denda.** Gema.
  - **Zapata denda.** Izaskun.
  - **Optika.** Villabona Optika.
  - **Bitxitegia.** Cid.
  - **Libudenda-paper denda.** Paper txulo.
  - **Ileapaindegia eta estetika.** Iñfi eta Xarman.
  - **Moda disenatzailea.** Amaia.
- **Babeslea.** Amasa-Villabonako Udala.
  - **Kolaboratzaileak.** Azar zapata konponketak, Pepi janaridenda, Begoña arropa konponketak, Etxe-sagasti Inmobiliaria, Obaba kafetegia, Ogi-Goxo kafetegia eta Electricidad Soto.

# Euskal Herria gailendu da kick boxingeko norgehiagokan

**Villabona** » Kataluniari 4-1 irabazi zion «maila handiko» lehiaketan; 700 lagun inguru bildu ziren Olaederra kiroldegian.

I. GARCIA

Euskal Herria lortu zuen garaipena Kataluniaren aurka larunbatean egindako kick boxing lehiaketan. 4-1 irabazi zuten euskaldunek, «maila handiko lehiaketan», antolatzaileek azaldu dutenez. Euskal Herriko Kick Boxing taldeak antolatu zuen norgehiagoka eta Amasa-Villabonako Udalak, Esaitek eta Bai Euskal Herriarrik babestu zuten. 700 bat lagun izan ziren lehiaketa ikusten eta antolatzaileak «gustura» agertu dira ekitaldiak izandako erantzunarekin.

Guztira sei lehia jokatzakoak ziren, baina Kataluniatik etorri behar zuten borrokalarietako bat lesionatu zegoen eta ez zen egon. Beraz, Erik Sunsunaga Espainiako txapeldunak ezin izan zuten bere



Kick boxingeko lehiaketaren une bat. HITZA

abilezia erakutsi kataluniarren aurka. Beste bost norgehiagoketik, bakarra amaitu zen K.O. z eta hori Aitor Eguzkitza Europako txapeldunak irabazi zuen. Aipatzekoa da ere Stephane Susperregi Frantziako txapeldunak erakutsitako maila, aise irabazi baitzion puntuetara aurkariari. Iñigo Ezeizabarrena Azurmendik eta Jon

Ibazetek ere puntuetara irabazi zuten eta Ander Azurmendik izan zen galdu zuen euskaldun bakarra. Aurrera begira, Euskal Herriako Kick Boxing taldeak Espainiako selekzioarekin norgehiagoko jokatze asmoo du Hernanin.

Antolakuntzatik eskerrak eman dituzte ekitaldiaren prestaketan lagundu duten guztiak.

# KMK-08koak «oso pozik» azokarekin

ERREDAKZIOA

Jende ugari hurbildu zen KMK-08ren antolatzaileek prestatutako bigarren eskuko produktuen azokara, antolakuntza bertatik azaldu dutenez. Haien esanetan, beldur ziren eguraldiak hau guztia atzera botaraziko ote zuten, baina jendea animoz jantzi, eta bueltatxo bat ematera ateratu zen. Guztira 21 postu jarri ziren. Hori horrela izanik, antolatzaileak «oso pozik» agertu ziren jasotako erantzunarekin.

Bost ikastolak (Anoetako Herri Ikastola, Tolosako Laskorain Ikastola, Ibarrako Uzturpe Ikastola, Villabonako Jesusen Bihotza Ikastola eta Irurako Ikastola) eta ikastetxe batek (Asteasuko Pello Errota) hartu zuten parte. Denetarik ikusi ahal izan zen bertan: eskiak, trizikoak, ipuinak, jokoak... Guztia ere salneurri merke eta eskuragarria. Artelatz enpresako kideek egin ohi duten bezala, euren produktuak ere jarri zituzten salgai. Bertan gauza interesgarriak ikusi ahal izan ziren eta bertaratutakoek



Azokaren une bat. A. IMAZ

denetarik erosteko aukeraz izan zuten.

Ikastoletan bildutako gauzei esker, bederatzik karpa zabaldu ziren. Hau guztia, jendearen borondateari esker izan da. Eta berriro ere eskerrak eman nahi izan zizkieten bertan parte hartu eta lagundu duten guztiak.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

# hitza




info

elastiko berriak salgai  
haur, gazte eta helduentzat

elastikoarekin  
**poltsa opari!**



**Tolosako  
HITZAren  
bulegoan  
eskuragarri.**



Harpidedunentzat

**%25**  
merkeago

## Laskorainek 5-2 irabazi die Oriokoei «dizdirarik gabeko» derbi batean

### Areto futbola »

Denboraldia amaitzeko bost partida besterik ez zaizkie geratzen eta gogotik egin behar dute lan.

### ERREDAKZIOA

Aurreko asteburuan Durangon txapela eskuratzeko lehiari agur esan eta gero, motibazioa bilatu beharrean da berriro Laskorain, beste jomuga batzuk finkatu beharrean, burutu duten denboraldi ahaztezina azken jardunaldietan ez narrasteko.

«Sekula samurra suertatzen ez den planteamendu honetarako» oso garrantzitsua zen pasa den larunbatean berriro ere garaipearen bidera itzultzea, hiru puntu gehiago pilotzea, eta honelaxe egin zuten horitxoek Orioko taldearen aurrean 5-2 gailenduta. Orain, Laskorainek merezita duten baikortasunez egin behar die aurre azken bost partidei.

Usabal kiroldegian jokatutakoa ez zen derbi oso ona izan. Bertaratu zirenen esanetan, «aitortzekoa da batere zirrarrarik eta dizdirarik

gabeko derbia izan zela». Kostakoei talde arrokatsua osatzen dute, kalitateari eta joko taktikoari dagokionean batzabesteko maila baino baxuagokoa behar bada. Baina konpromezuan, intentsitatean eta ahaleginean punta puntakoak direla garbi dago. Ez dira alferrik azken bi denboraldietan gol gutxien jaso dituen taldea izan.

Honen guztien jabe horitxoak «alper samar» kantxaratu zirela azaldu dute arduradunek, baitzekiten disfrutatzeko baino sufritzeko eta lan egiteko izango zela neurketa eta hori ez zen motibazioa altxatzeko aproposena. Honela lehen zati hotz bat ikusi ahal izan zen. Barriolak sartutako golari oriotarrek banakoarekin erantzun zien berehala eta banakoak atsedenera arte iraun zuen, «sentsazio gazigozoak sortuaz horitxoengan».

Norgehiagokaren bigarren erdian hasieran ordea, Barriolak berriro hautsiko zuen berdinketa, paintaldekoea zirudien gol batekin eta minutu batzuk beranduago Telleriak partida erabakita utziko zuen horitxoaren hirugarrena sinatzean area kanpoko jaurtiketa bati

eskerrak. Minutu lasaigoak izan ziren beraz bigarren zatikoak, horitxoaren nagusitasuna islatu baitzuten baina ez ziren ez disfrutatzeko azkan.

Otxoa ibartarrak sartu zuen ondoren laugarrena kontraeraso batean eta Telleriak berriro bosgarrena. Horitxo gazteek aurrean pausu bat aurrera eman dutela argi dago, denboraldi ona ari direla osatzen inork ezin dezakeelarik uka. Telleria, Otxoa, Gil, Arribillaga, Murgi, Zabala, Zubillaga etaberrarekin bermatua dago Laskorainen etorkizuna.

Azkenik beste datu bat ere azpimarratu behar, hiru puntu berri hauekin Laskorain dagoeneko 50 puntutara iritsi dela eta ia zoko emaitza gaititu duela bost jardunaldiren faltan. Harro irten ziren beraz Usabal kiroldegitik Javi delegatua, Egizabal eta Alonso entrenatzaileak (Egizabalek jubilazioetik bueltatu behar izan zuten Alonsoren santzioa tarteko) eta Arribillaga, Zabala, Amatriain, Barriola, Saldias -haserako bostekoa, Telleria, Telletxea, Gil, Murgi, Otxoa eta Domentxe areto futboleko jokalaririk.

## S Soka motzean

### «Larrosa, klasikoa izan arren, beti saltzen da»

#### IDOIA AGINAGA »

Lore saltzailea

#### ESTI ZEIZA

Etxetxo lore dendan egiten du lan Idoia Aginagak (Tolosa, 1979). 1982an ireki zuen bere amak lehen lore denda. Gerora bera hasi zen berekin lanean.

**Zeintzuk dira gehien saltzen diren loreak urteko sasoi honetan?**

Hiedra, geranioa, surfinia, petunia, begonia... Hauek dira merkeenak eta jendeak gehien erosten dituenak. Kanporako, berriaz, urte guztian zehar berdinez ikazaten dira, ez dago denboraldirik.

**Idea zehatzik gabekoei zer gomendatzen diezue?**

Orientazioagatik galdetzen diegu eta baita eguzkiak joko duen ere. Normalean hasiberriei ematen dizkiegu azalpenak.

**Loreak erosi bakarrik ez, gerora zaindi ere egin beharra daude.**

Bai, denbora eskaini behar diezu, eta askok ez dakite hori. Abo-noak, intsektizidak... gauza batzuk jakin behar dira.

**Zeintzuk dira lore erraz eta indartsuenak?**

Geranioa eta hiedra.

**Oraindik ba al dago larrosak oparitzeko ohitura?**

Bai, baina detaile txikiako paritzen ditugu gaur egun, hau da, larrosa bat edo birekin osaturiko erramua. Larrosa, gainera, klasikoa izan arren beti saltzen da.

**Modarik ba al dago loreekin?**

Bai, azken aldian orkideak daude modan.



Miguel Soroa pilotari zendu eta maitatuari omenaldi bat egin nahi izan diote bere hurbileko lagunak, horretarako meza eta afari batez. Hilaren 24an izango da, 'lagunarteko ilunabarrean'.

## Lagunarteko omenaldia

### NEREA URBIZU

**M**iguel Soroa pilotari elduaindarra zendu zela bi hilabete igaro dira (otsailaren 11n hil zen 82 urte zituela). Baina, lagun askokoa izaki, merezitako omenaldia antolatu diote bere lagunak, berelagunartekoak, haiek dioten moduan. Hilaren 24an izango da omenaldia, eta lagunak esan bezala, «berak egingo zuen moduan egingo dugu: Miguel Soroa zenaren lagunarteko ilunabarra», hain zuzen.

Elduaingo atzelari ezkerren omenez, beraz, hilaren 24an *Lagunarteko ilunabarra* eskaini nahi izan diote hurbileko lagunak, eta Beotibar inguruan berarekin murgiltzen zirenen artean, alegia.

### Omenaldia, «bere gustura»

«Soroak egingo lukeen modura, bere gustura egin nahi izan dugu ekitaldi hau», Letamendiak aipatu bezala. Meza eta afaria izango dira ekitaldi garrantzitsuenak, baina bertan parte hartuko dutenak izango dira benetako dizdirak.

### » EGITARAUA

- **Eguna.** Apirilak 24, osteguna.
- **Ospakizuna.** Miguel Soroa pilotaria zenari omenaldia.
- **19:30.** Jesuitinetako kaperan meza ospatuko dute.
- **21:00.** Afaria Fronton jatetxean.
- **Afalandoan.** Kantua, txistulariak, bertsoak, soinua...
- **Parte-hartzaileak.** Zarauzko oleskariak, Jose Arzelus organo-jotzailea, Egaña eta Euskitze ber-

«Partzuarrak», Letamendiaren ahotan, «pilotarekin lotutakoak eta Soroaren ingurukoak izango dira»: Zarauzko oleskariak, Jose Arzelus organo jotzailea, Egaña eta Euskitze bertsoariak, Garikoitz Mendizabal eta Iñaki Letamendia txistulariak eta Jose Luis Etxeberria, *Xafre* trikitilaria.

Frontonen egingo duten afarian jatekoak hauek izango dira: xixa nahaskia, garaiko barazkiak (ilarrak, babak eta zainzuriak), legatz frijituak, gazta eta tarta izozkiarekin. «Hori zen Migueleri gustatzen zitziona, afari merienda moduko hori». Guztia 40 euroren truke eta Frontonera bertara deituta: 943 65 29 41. Soroaren lagunak ez dute izena emateko eperik zehaztu, baina bai eskertuko lukete ahalik eta azkarren izena ematea, antolatzen joateko.

### Soroa, pilotari profesionala

Soroa 25 urte zituela hasi zen pilotari profesional gisa. Lantegi batean egiten zuen lan 12 orduz eguneroko eta pilotari aritzeko denbora be-

tsolariak, Garikoitz Mendizabal eta Iñaki Letamendia txistulariak eta Jose Luis Etxeberria *Xafre* trikitilaria.

- **Afariako izen-ematea.** Frontonen, 943 65 29 41. Lehen bailehen deitza eskertuko lukete.
- **Babesleak.** Opil okindegia eta Fronton jatetxea.
- **Antolatzzaileak.** Miguel Soroaren lagunak.



San Frantziskon izan zen Soroaren hileta elizkizuna: jendetsua izan zen. E. E.

har izaten zuen. Azkenean, lortu zuen egunean 8 orduko jardunaldia. Groseko frontoian debutatu zuen eta irabazi egin zituen hurrengo 7 partidak: horren ondorioz, Empresas Unidasek kontratua egin zion profesional gisa. Ez zen, baina, pilotari bakarrik aditu, musika ere maite baitzuen: akor-

deoia jotzen zuen askotan, eta herriko festetan ibiltzen zen jotzen. Aukera egin behar izan zuen, eta pilotarekin jarraitu zuen.

Urrezko ezkerre deitzen zioten, «oso dotorea baitzen pilotari ematen zionean», Ander Letamendia bere lagunak gogoratzen zuen bezala.

### Pilotari ere dotorea

Miguel Soroa kantxara ateratzeko garaian ere dotorea zen: «Pilotariak ondo orraztua atera behar zuela zioen Soroak, eta gerririkoko bi puntak ere, bere lekuan jarrita». Dotoretasuna, beraz, beti.

1954. urtean buruz buruko txapeladuna izan zen Barberitoren aurka, Eibarko Astelena pilotalekuan. Urte berean Ogetaren aurka Lau T' erdiko txapelketan garailea izan zen. 1955ean Arriaranen aurka jokatu zuen buruz burukoak, bainagaldu egin zuen.

### 47 urteak arte pilotari

22 urtez aritu zen profesionalean, 47 urteak bete arte, hain zuzen ere. Bere ezaugarrien artean, umiltasuna eta dotoretasuna azpimarratzen dituzte ezagutu zutenek.

Ander Letamendiak bere bizitzari buruzko lana egin zuen duela 9 urte inguru, *Miguel Soroa: señorio en la cancha* deiturikoa, hain zuzen.

## Z Zurea da hitza info

# Ugartetik Petritegira egindako txangoa, «egun gogoangarria»

**Ugarte** » Joan den asteburuan sagardotegira joan ziren autobusez eta autoz, guztira 60 lagun. Argazki mordoak dituzte.



Argazki guztiak [www.ugartetik.blogspot.com](http://www.ugartetik.blogspot.com) webgunean daude. UGARTETIK

### UGARTETIK.BLOGOSME.COM

Egin dugu sagardotegitik joan etorrria. 12:30ean elkartu gara Ugarten, autobusean ezin sartu denok eta batzuk kotxean joan behar.

12:30ean elkartu gara Ugarten, autobusean ezin sartu denok eta batzuk kotxean joan behar. Ia 60 lagun, 2 eta 4 urtekoak gaztetxoak eta 78 inguru nagusiak. Talde anitza, bai adinari, gustuei, ohiturei edo iritziei dagokien ere. Guztiok egun on bat pasatzeko elkartuta, ezberdintasunak gaindituz eta aniztasuna aberastasun bihurtuz. Herri txikitako ezaugarrietako bat da, Ugarten bai behintzat.

Ugartetik abiatu, goiz-goiz Astigarragako Petritegi sagardotegi

erraldoira iritsi, basoak hartu, sagardoa dastatu, jan eta edan, (batzuk eserita, beste batzuk gehienetan upel ondoan), ibili, hitz egin, hitz egin, hitz egin, gure taldeko Xabierrek eta Iñakik trikitixaren doinuarekin sagardotegiko bazkalder guztiak aztoratu, kantatu, dantzatu, kafea hartu, nola edo hala autobusera berriro! Bertso saioaren hasiera autobusean 18:00etan, Ugarteko elkartean ja-

rraipena eta 20:00etan nik aldegin dudanean oraindik jo ta ke bertsoetan! Eta berehalakoan bukatzeko itxuririk gabe. Auskalo noiz arte irauango zuen festak batzuentzat!

Beste egun gogoangarri bat. Argazki guztiak ikusteko aukera [www.ugartetik.blogspot.com](http://www.ugartetik.blogspot.com) webgunean ikus ditzakezue, asteberri eder hori gogoratu (Txintxarrisferaren baitan dago Ugartetik webgunea).

## Loatzoko zeharkako xirulakoen kontzertua

**Tolosa** » Bihar izango da Donostian; larunbatean, berriz, Elgoibarko Talde Instrumentaleko lehiaketan ariko dira.

Donostiako Arrasate kalean Kutzak duen egoitzan izango da zeharkako xirulakoen kontzertu hau, 19:00etatik aurrera, bihar. Han izango da hauek entzuteko aukera, beraz.

### ERREDAKZIOA

Bihar bertan, Loatzoko zeharkako xirulako ikasleek kontzertua eskainiko dute Azkoitiko Bizkargiko eta Donostiako Francisco Escudero kontserbatorio ikasleekin batera.

### Larunbatean Elgoibarren

Bestetik, larunbatean 17:00etan Loatzoko zeharkako xirulako ikasleek kontzertua eskainiko dute Azkoitiko Bizkargiko eta Donostiako Francisco Escudero kontserbatorio ikasleekin batera.

## ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA





III. Satur Eleta Lehiaketan parte hartu duten Leitza eta Aresoko ikasle guztiak. N. URBIZU



Oinatz Mariezkurrena leitzarrak batera jo zuen. N. URBIZU



Argazkian, lehiaketan parte hartu duten ikasle guztiak, Urko Aristi aurkezlearen ondoan. N. URBIZU



Xuxe Mutuberriak trikitixa jo zuen. N. URBIZU

## Satur Eletan, bost sari etxera

**Musika** » Aralar Musika Eskolak urtero antolatzen duen txapelketa honetan Leitza eta Aresoko 5 ikasle sariak eskuratu zituzten.

### NAIARA GARZIA

Joan den larunbatean 31 Aretoa ospatutako III. Satur Eleta Lehiaketan 5 leitzar eta aresoar saritu zituzten. 24 parte-hartzaile izan zirenez, eta gehienak bakarlarriak izan ziren (lau bikote eta hirukote eta laukote bana egon baitziren).

### 5 sari Leitzara eta Aresora

Beñat Altzelai (saxoa) leitzarrak lehenengo saria jaso zuen bere kategorian, hau da, 8-9 urte bitarteko mailan; kategorian berean, hirugarren saria Amaia Ezkurdiak (akordeoia) jaso zuen. Mikel Sagastibelza Lasarte (gitarra), 10-12 urte bi-

tartekoan bigarren gelditu zen. 13-15 urte bitarteko kategorian Zuriñe Goikoetxea (pianoa) aresoarrik lehenengo saria jaso zuen eta Lorea Zabaletak (txistua) hirugarrena.

8 kategoria ezberdinetan lehiatu ziren Aralar Musika Eskolako ikasleak: bakarlarri bezala 4 kategoria zeuden, bikote bezala 2, eta hirukote eta laukote bezala bana. Kategoria bakoitzeko irabazleak Lekunberriko Karlos Baldak egingindako zintzarriak jaso zituen. Honetaz gain, lehiaketan parte hartu duten ikasle guztiak (80 inguruk) domino txiki bat jaso zuten.

Hirukoteetan eta laukoteetan

lehenengo sariak ez zituzten eman, behar adina maila ez zutelako.

### Eman gabeko sariak

Zenbait kategoriatako sariak ez zituzten eman. 13-15 urte bitarteko bigarren saria, esaterako, epaimahaiak ez ematea erabaki zuen, eta hirugarren 2 sari eman zituen. 16 urtetik gorakoetan, hirugarren saria ere ez zuen eman. Kategoria honetan aipagarria izan zen lehenengo gelditu zena, Brais Novoa Loira, gaixorik joan baitzen finalean. Parte ez hartzekotan egon zen arren azkenean aurkeztu egin zen, eta asma duenez, maskara eta guzti azaldu zen, eta honek jendearen atentzioa eman zuen.

Bikoteei dagokienez, 8-11 urte bitarteko kategoria ez zuten eman eta hirukote eta laukoteetan talde guzti aurkeztu zirenez, ezin izan

zituzten sari guztiak eman. Hirukoteetan, Lierni Pellejero, Maddi Sotil eta Saioa Amundarain izan ziren aurkeztu ziren bakarrak eta bigarren saria lortu zuten, lehenengo eta hirugarrena, beraz, hutsik gelditu ziren. Laukoteei dagokien-

ez, talde bakarra aurkeztu zen, baina epaimahaiak saririk ez ematea erabaki zuen, beraz, kategoria honetan ez zuten saririk banatu.

17:00etan hasi zen finala eta 3 ordu iraun zituen eta 31 Aretoa erabat bete zen.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Alegia.** Ekainaren 1erako artisautza azoka ari dira prestatzen. Parte hartu nahi duenak materiala (egurra, zumea, saskiak, koadro, margolanak, eskualanak, larrua...) Inaxio Begiristain kultur eta kirol etxera eraman dezala (943 654698).  
■ **Tolosa.** Eragimenez gidatzeko ikastaroa doan Kultur Etxean, Naturaldia jardunaldien barruan. Autoari etekinik handiena ateratzeko, energia gasturik txikienarekin.  
■ **Ibarra.** Maiatzaren 7an Izaskungo erromerian egingo den bazkari-rako txartelak, Bizi nahi elkartearen 25 eurotan (bazkide ez direnek 30 euro).

### Antzerkia

■ **Villabona.** *Ogirik gabe etorri zen semea* antzezlanaren Gurea aretoan 11:00etan DBH 2., 3. eta 4. mailakoentzat.

### Hitzaldiak

■ **Tolosa.** Naturaldia jardunaldiak: *Landa ingurunea: energia sostengagarritasunaren adibide* hitzaldia-Kultur Etxean 20:00etan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaroitz auzoa, 9. 943 675118.  
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.  
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.



## Einstein, Antzerki Astearen lehen protagonista

**ZIZURKIL** ● Antzerki Asteari hasiera eman zioten atzo Ados Teatro taldekoek. Einstein zientzialari famatua protagonista den antzezlanaren ikusi ahal izan zuten 6 eta 12 urte bitarteko haurrek. Orain hiru urte sortutako obra izan zen, zientzialaria jaiotako 100 urte betetzen zirela eta. Karpa-puzgarri handi batean sartua, haurrek Einsteinen hainbat biz-

pen eta teoria jakin ahal izan zituzten. Asier Hernandez aktoreak egingen zuen Einstein zientzialariarena eta atzokoa izan zen bere azken emanaldia. Gaurkorako, DBH2, 3 eta 4ko ikasleentzat zuzendutako antzezlanaren izango da. Gurea antzokian egingo da emanaldia, *Ogirik gabe etorri zen semea* izenekoak. I.GARCIA

## A Agurrak

agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak